



HERBESTEKO EUSKAL NAZIONALISMOA

“El periodo 1937-1960 marca un giro decisivo en el contenido del nacionalismo vasco. En efecto, la burguesía nacional pierde su puesto dirigente al frente del conjunto de las clases populares, y se empieza a manifestar un nuevo patriotismo ligado a los intereses de la clase obrera” esaten du atze-aldeko portadan. Epe hau oso inportantea da. Euskal Herriko historia hurbila aztertzeke. Artikulu honetan aipamen bat egin nahi dugu liburu banetaz. Orain dela guti argitaratu da liburu hau:

- EL NACIONALISMO VASCO EN EL EXILIO (1937-1960)
- BELTZA. Ed. TXERTO. San Sebastian. 1977
- 158 horrialde . 390 pezeta.

Sarrera bat du liburua. Eta gero azterketa bat, bost partetan : 1) 1937-1945, derrota, herbestea eta nazismo garaia. 2) 1945-1947; PNV eta Euskadiko Gobernuaren prestijioa. Gerra mundialean aliatuek irabazten dute. Eta PNV eta Euskal Gobernuak konfiantza lortzen dute demokrazien artean. Eta batez ere, yankiengn. Baina barruan borroka jarraitzen da. 3) 1947-1952. Antikomunismo konzenionista eta Euskadiko Gobernuaren deklieba. Mendebaleko demokraziek ez dute Euskal Gobernuari apoiatzen. Eta frankismoarekin harremanetan hasten dira demokraziak. 4) 1953-1960. Nazionalismo berria aztertzen da. PNV eta Euskal Gobernuaren inaktibitateagatik. Nazionalismo berria, J.A. Agirrerren heriotzarekin hasten da. 5) Dokumentu bilduma bat da (105-158 horrialdeak).

Azterketa gaia hau da, ba. 1937-1960-ko nazionalismoaren historia. Ez da azterketa soziologikoa egiten. Politik arazoak azaltzen dira. Eta politika ere; PNV-ren ingurukoa, konkretuki. Herbesteko nazionalismoaren deskripzio bat da. Eta inestigazio politiko bat. Liburua laburra eta arina da irakurtzeko. Ez da azterketa sakona eta aspergarria. Ulertzeko errazada eta interesantea;

Bi ohar egin behar dira. Liburua situatzeko eta bere aportazioa baloratzeko. Batape historiko honen azterketa hau suposatzen du: lan jeneralaren monografia ; monografia ugaria; Askotan, zailagoa da historia hurbila aztertzea antzinako historia baino. Historia hurbila gertu dagoelako. Inestigazioei oztopo asko jartzen zaizkie. Gainera, historia progresista izaten ahal da, batzuetan. Eta orduan oztopo haundiak jartzen ditu klase dominanteak. Gai hau, epe hau (1937-1960). guti erabili da, Eta karga ideologiko burges batekin eman da. Tema hau ez da agertu sistemaziko minimo batez. Ortziren liburuetan zerbait bai. Beltzaren liburuak aportazio bikaina da, eta sintesi ona. Baina ez du bete monografiaren eskasia. Eta hau beharrezkoa da, estudio sakon bat egiteko.

Beste ohar bat dago. Autorearen beste obrak aipatu behar dira: EL NACIONALISMO

VASCO (1876-1936) eta NACIONALISMOA VASCO Y CLASES SOCIALES. Beltzaren obra hiru liburu hauetan banatua dago. Hiru liburu bat dute. Sistema bat osatzen dute. Hiru obrak irakurri behar dira. Horrela analisiaren ikuspegi bat ikusten da. Ikuspegi jeneral eta objektiboa. Banan bana irakurritz, hutsune bat nabari da. Hirurak konplementarioak dira. Eta



banaka, errenak. Baina sistema hori ez dago osatuta. ETA eta euskal langile mugimenduen historia falta dira. Eta gauza gehiago. Hirugarren testoa besteen ondorioa da: klase sozialen azterketa (2) eta nazionalismoa (1). Bertan ez da horretaz sakontzen. Nahiko partziala da, haliegia.

Partziala, tema aldetik esan nahi dut. Arrisksua bait da “centro de la familia nacionalista” (9. horrialdean) idaztea. Temak konte-

nidoa mugatzen du. Orduan historia gutxitua eta erreduzitua geratzen ahal da. Eta partzialtasuna kontenidozkoa izaten ahal da. Eta ez dut esaten, hori kasu honetan gertatu dela.

Baina 1937-1960 aldi historikoa aztertu-ko dugu. Eta aldi honetako aldaketa politikoak aipatuko ditugu. Aldaketa fundamentalenak. Lehenengo aldia gerra zibila eta gerra mundiala artekoa da. Aldi honetan, nazionalismo burgesak, demokraziaetan konfiantzen du. Mendebaleko demokrazietan. Euskal Gobernuaren protagonismoaren bidez. Eta optimismoz bultzatzen ditu barruko mobilizazioak eta erresistentziak (1941, 1947 eta 1951ko greba orokorrak adibidez). Nazionalismoak, Mendebaleko estatu kapitalistetan du esperantza. Baina honek ondorio txarrak ditu. Estatu hau kapitalistak dira. Eta klase logika konsekuente bat erabiltzen dute. Horregatik, frankismoa finantzitzen dute. Nazionalismo burgesak ezin du erantzun bat eman. Ezkoiuntura internazional politikoa aldatzeko. Ezta ere euskal klase burrukaren dialektika iraultzaileari. USA eta Mendebaleko demokrazia burgesek, beren klase interesak agertzen dituzte. Eta euskal nazionalismo burgesak liluratuta segitzen du; gero etsita. Hego Euskal Herrian esplotazio kapitalista gogorra izan da. Eta euskal masek, iraultza sozialistaren beharra agertzen da. Eta batzuetan esplotatzaile ere. Oztopak jarriko dizkio nazionalismo berriari (EKIN 1953an eta ETARI 1958tik aurrera). Erresistentziaren protagonismoa aldatu egiten da. Nazionalismo burgesetik, nazionalismo burges-txiki iraultzaileagana pasatzen da. Base sozio-ekonomikoak aldatu egin dira: inmigrazioa, industriagintza eta baserriarren proletarizazioa.

Autorearen azterketa, pratika politikoari lotzen zaio. Klase burrukari hain zuzen. Aurreko obren tesiak hauk ziren, nire ustez: (1) Euskal gizarte kapitalistak eboluzio autonomo bat izan du. Eta euskal langileriaren esplotatzaileak, euskal burgesak izan dira. (2) Nazional arazoari buruzko jokabidea, klase egoerak determinatzen du. Euskal proletario bat ba dago. Eta proiektu nazionala beteko du: iraultza sozialaren bidez. Eta klase honek bakarrik beteko du proiektu nazionala. Horretarako kapaz da.

Bi liburuen eskema honekin, arrisku bat ba dago. Autorearen lana desbirtuatzea edo sinplifikatzea. Baina, tira. Hirugarren liburu honetako tesi fundamentalak hauk dira. Arrisku berdina dago, baina beno 1) Kondizio sozialen aldaketak, nazionalismoaren base soziala aldatzen du. Eta nazionalismo barruko klase arteko ekilibrioa hausten da. Horrela langile masa progresista eta iraultzaileak sortzen ditu. 2) Burgesia nazionalistak interes bereziak ditu. Mendebaleko kapitalismoari lotzen zaio. Frankismoaren pean, eta frankismoari esker, euskal langileriaren plusbaliaz jabetu da. Eta ez du damurik izan. Klase interesak, nazioareganako sentimenduak baino fuertagoak dira. Herbesteko nazionalismoa ez da gogor bururatu frankismoaren kontra. Estrategia kontenporantizante bat erabili du. 3) Burrukaren protagonismoa traasladatu egin da, nazionalismo burgesetik nazionalismo berrira, klase herrikoien nazionalismora. Hau euskal klase burrukak eragin du (eta nazionalismo burgesaren etsipen, lotsa eta klase interesak). Nazionalismo interklasistaren berriko burruka da. Eta burruka hau ez da honetan bukatzen, noski.